



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Txemari etxera!

Idatzi honen bidez, Huesa Gallo epai-
leak hartutako erabakiak sortu di-
gun dezepzioa eta kezka adierazi
nahi dugu, Txemari bizilagunaren
askatasuna Espetxe Erakundeen es-
kuetan utzi baitu.

Gure eskubideak bermatu behar
dituztenak epaileak direla deritzogu.
Haiek, erakunde politiko bat dela ja-
kinik, bere ardura Barne Ministerio-
ari uzten badiote, norik zaindu behar
ditu eskubideak? Barne Ministerio-
ak Euskal Preso Politikoekin nolako
jarrera duen ondo dakigu denok:
bahitu moduan erabiltzeko.

Txemarik 1995etik aurrera etxean
izan behar zuen. 1999ko azaroaren
2an Nafar Audientziako aurreko
epaileak (Ruiz Polanco) 3. gradua
aplikatzea onartu eta baldintzapeko
askatasuna ontzat eman zuen.
Orain, berriz, epaile berriak bertan
behera utzi du erabakia —Barne Mi-
nisterioaren interes politikoen era-
bateko menpekotasunaz—, nahiz
eta interes horiek bai beraien gaur
egungo legegintzaren aurka eta baita
Euskal Herriko gehiengoaren nahia-
ren aurka joan. Ondorioz, gure preso
politikoei buruzko erabaki ofizialak
nahi duten moduan hartzen dituzte-
la frogatu da berriro ere.

Kartzelan ia 20 urte bete ondoren
eta beste preso batzuek kalean ego-
teko baliagarriak izan diren betebe-
harrak edukirik, askatasuna ukatu
diote. Erabaki horrek ez du batere la-
guntzen denok gogoan dugun nor-
malkuntzarako prozesuan. Alderan-
tzip, zeren Euskal Herriko gehiengo-
aren nahia eta etsipenaren aurkako
burlatzen uler daiteke bakarrik.

Txemariren herrilagunok lehen-
bailehen gure artean egon dadin la-
nean jarraituko dugu. Estimaten
zaitugu. **Maritxu Sanz** • (Etxekoan,



*Hernaniko alkatearen eta 3/4 Herri
Ekimenaren izenean)*

Nafarroako 'erregeordearen' erasoak

Miguel Sanz-ek, berriro ere, bere
lerde ustela isuri du. Sortzez an-
tieuuskalduna eta antinafarra iza-
ki, zer itxaro genezakeen halako
pertsonea batez?

Oraingoan ongi hustu du bere
pozoia. Hurrengoan zer? Mihia
moztuko digu euskaraz egin ez de-
zagun, edota bihotza aterako digu
gure nazionalitateari uko egin die-
zaiogun?

Gure historian Sanz anitz eduki
dugu. Aurrekoak ez ote zuen
Urralburu abizen gisa? Dena den,
hemen gaude eta hemen egonen
gara, Espainiak ezarritako errege-
orde guztien gainetik. Etorkizuna
agramontarra da, eta oraingoan ez

gaitzute Noainen zanpatuko. **Jo-
seba Aurkenerena** • URRUÑA (LA-
PURDI)

Gutun irekia Arnaldo Otegi

Garai garratz batengatik idazten di-
zut. Ez asmakizunezko gudu psiko-
logiko batean gara eta abertzaleok el-
gar tinko behar dugula atxiki, arra-
zoinez esanik izan duzu behin baino
gehiagotan. Zurekilan nagoela nizun
erran nahi. Kale borrokaren aurkari
egin zinuen gaitzespenaren bihara-
munean, tregua hautsiko zutela zaz-
pi egunik barne deklaratu zuten guk
kontrolatzen ez ditugunak... jakin
gabean, etxerik gabeko zakur ba-
zuen menpe ibiltzen dirala delako-
ak... Gaitzespenaren tenorea etorri-
ko denean ez dut dudarik, egingo du-
zula. Anartean, atxik Arnaldo...
atxik. **Erik Etxamendi** • MITHI-
RIÑE (NAFARROA BEHEREA)

galdeiozu...



Sagrario Aleman

IRUÑEKO ARTURO CAMPION
EUSKALTEGIKO ARDURADUNA

**Luze gabe Nafarroa osoan
euskarazko ofiziala izateko
aukerarik ikusten al
duzu? Euskararen Legea
aldatuko al da epe
laburrean?**

Andoni Oiarbide [Legerreta]

■ **EPE LABURRERA** ez, epe
laburra gobernaldira honetan
esan nahi bada, behintzat.
Oraintxe *Vascuenceren legea*
alda dezaten eskatuz kanpai-
na egiten ari gara Nafarroan,
eta aurki helburutzat jarri
den 25.000 sinaduraren bil-
keta gaindituko da, baina ez
dut uste, Sanz jaunaren adie-
razpenak entzunda, lege al-
datzearen alde egonen denik,
hain zuzen ere.

Otsailaren 8tik aurrera
Jokin Azkue • HABEKO
ZUZENDARIA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

